

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **1h 50 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
IRAKURMEN-PROBA Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.	50 min.	20	10
IDAZMEN-PROBA Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz-kopurua bete. Eskatutako hitz-kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.	60 min.	30	15

- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- Azterketa-koaderno **hau** ez da jasoko, **zuretzat da**.

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

Nola markatu erantzun zuzena?

- a)
- b)**
- c)

Eta oker markatu baduzu?

- ~~a)~~
- ~~b)~~
- c)**

BORDAZAR ESNE-MAKINEK IA URTEBETE DARAMATE DONOSTIAN

Iñaki Zapirain baserritar altzatarrekin lanbidearen gazi-gozoez eta produktuaren kalitateaz mintzatu gara.

Bordazar baserrian jaio eta hazi da Iñaki Zapirain. Txikitan baratzeko lanetan, behiak jeizten edo sagardoa egiten aritzen zen. Baina, gaztetan baserritik bizi nahi zuela erabaki zuen eta behi-esnean espezializatu zen. Duela ia urtebete, esnea saltzeko makinak jarri zituen Donostian. Erronka handia zen, baina jendearen erantzuna ona izan da eta pozik dago. Izan ere, oso produktu ona merkaturatzen ari da, ez dago merkatuan hoberik, eta kalitateari erreparatzen dion jende asko dago.

Gaur egun, 80 behi dituzte Bordazar baserrian. Horrenbestez, egunero, goizean goiz jaiki eta zazpietan behiak jezten dituzte. Egunean bi aldiz egiten dute, oso ona baita hamabi orduro egitea, errapea gehiegi ez kargatzeko.

Bestalde, higiena mantentzea ere garrantzitsua da: lehendabizi desinfektatzailea jarri eta gero, jezteko makinan ipintzen dituzte. Behiak osasuntsu egon behar du eta ukuilua txukun eta garbi; «Oso-oso garrantzitsua da behatzailea izatea, Iñaki beti ari da behatzen ea behiak zenbat esne ematen ari diren, errapeko minik ote duten, sukarrak daukaten, susara dauden...

Baina zergatik aukeratu eguneko esnea? Bordazarreko esnea jetzi, hoztu eta pasteurizatu egiten dute; hori da esneak jasaten duen tratamendu bakarra. Gainerako esneak, berriz, zentralera eraman, manipulatu eta egunak pasata iristen dira kontsumitzailearengana.

Jendeak maiz esan ohi dio Zapiraini lehengo esneak «beste gorputz bat» zeukala. Hain zuzen ere, lehen, behiek esne gutxiago ematen zuten, baina kontzentratuagoa zen; esnegain ederra edukitzen zuen. Gaur egun, aldiz, behiak lehen baino esne gehiago eta hobe emateko prest daude, beren elikadura kontu handiz zaintzen baita: oso elikadura orekatua ematen zaie eta gantzak zorrotz behatzen dira.

Esne-makinen proiektua duela hiru urte jarri zuten martxan. Bordazar esne-makinak bi urteren buruan iritsi ziren hirira, baina harrera beroa izan zuten. Baserritarrek, orain arte, lan handia egin dute ezkutuan, jendeak ikusten ez duena, eta orain baloratu egiten da. Horrez gain, birziklatzearen gaia ere nabarmendu beharra dago: jendeak botila etxean garbitu eta berriz esne bila joaten da. Horrela, zabor gutxiago sortzen da.

Oraintsu, esnearen kontsumoa pixka bat jaitsi bada ere, neurri politean mantendu da eta Zapirain familiak horrela jarraitzea espero du.

O. Gil, *Irutxuloko hitza*. 2011ko uztaila. Egokitua

1. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa. Aukeratu erantzuna.

1. Zertaz aritu gara hizketan Iñaki Zapirainekin?

- a) Produktuaren gozo eta gazitasunaz.
- b) Lanbidearen kalitateaz.
- c) Lanbidearen gorabeheraz.

2. Zer egin zuen Iñaki Zapirainek?

- a) Txikitan behi-esnean espezializatu zen.
- b) Gaztetan baserriko lanak egitea erabaki zuen.
- c) Txikitatik ari da baserriko lanak egiten.

3. Zer egiten dute Bordazar baserrian?

- a) Egunero zazpietan jaikitzen dira eta hamabietan jezten dituzte behiak.
- b) Behiak egunean behin baino gehiagotan jezten dituzte.
- c) Goizean goiz bakarrik jezten dituzte behiak.

4. Zer zaintzen du Iñakik kontu handiz?

- a) Makinaren funtzionamendua.
- b) Ukuiluaren egoera.
- c) Behien ongizatea.

5. Zergatik komeni da eguneko esnea?

- a) Ez delako asko tratatzen.
- b) Tratamendu luzea duelako.
- c) Zentralean ere tratatzen delako.

6. Nolako esnea ematen dute oraingo behiek?

- a) Lehen baino gehiago baina arinagoa.
- b) Lehen baino gutxiago eta esnegain gutxiagorekin.
- c) Lehen baino gutxiago baina lodiagoa.

7. Noiz jarri zen martxan esne-makinen proiektua?

- a) Bordazar makinak iritsi baino hiru urte lehenago.
- b) Duela bi urte baino gehiago.
- c) Bordazar esne-makinekin batera.

8. Zer lortzen da sistema honekin?

- a) Hondakin gutxiago sortzea.
- b) Herritarrak sentsibilizatzea.
- c) Herritarrek botila gutxiago erostea.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa

Zenbait kiroldegitako eskaintzei buruzko informazioa daukazu.

Lotu esaldia dagokion testuarekin.

Nola markatu erantzun zuzena?

A	B	C
---	----------	---

Eta oker markatu baduzu?

A	B	C
---	--------------	--------------

A	B	C
Udal Kiroldegiak ohiko ordutegia izango du irailetik aurrera. Atzotik zabalik dugu goizeko 8etatik gaueko 10:00etara bitartean. Erakundea ikastaroen berri ematen hasi da. Halaber, hasi da denboraldi berriko ikastaroetarako izen emateak hartzen. Esan behar, jada irekita daudela fitness eta kardio eta aerobikeko aretoak. Igerilekua abuztuaren 24an zabaldu zen. <i>Beti Ondoko</i> kirol-gunea ere zabalik dago eta betiko ordutegia izango du. Kiroldegiak eskaintza zabala prestatu du. Ikastaro batzuk irailean bertan jarriko dira martxan; beste hainbat, aldiz, urrian hasiko dira. Horietan izena emateko epea zabalik dago. Erakundeak ezagutzea eman du iraileko eskaintza, besteak beste: spinning, mantenu-gimnasia eta patinajea. Bestalde, igerilekuan igeriketa edo aquagym egin ahal izango dugu. Urriko eskaintzaren berri datozen egunetan emango dizuegu. <i>Ermuko udala, 2011ko iraila</i>	Astelehen eta asteartean kiroldegiko bazkideek izango dute izena emateko aukera. Asteazkenean eta ostegunean, berriz, bazkide ez direnen txanda izango da. Kiroldegiak prestatu du aurtengo ikastaro eta jardueren eskaintza. Haur, gazte zein helduentzako kirol-jarduera zabala prestatu dute; besteak beste, Akuagim, Aerobik, Yoga, Cycling, igeriketa eta pilates ikastaroak emango dira. Kirol-jarduera horietan izena eman nahi dutenek, datorren astean dute aukera. Astelehenean eta asteartean, hilaren 5ean eta 6an, bazkideen txanda izango da. Eta asteazkenean eta ostegunean, hilaren 7an eta 8an, berriz, bazkide ez direnen txanda izango da. Izena, kiroldegian bertan eman behar da, eta kiroldegia irekita den denbora osoan izango da aukera (goizeko 7:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 22:00etara). <i>Zumaiako Udala, 2011ko iraila</i>	Kiroldegiak kirol-jarduera ezberdinetan izena emateko epea ireki du jada. Haurrentzat gin-jazz eta judo eskolak eskaintzen ditu, gazteentzat (10 urtetik gorakoentzat) aerobika eta jubilatuentzat, berriz, pilatesa eskainiko du. Haurrei dagokienez, gin-jazz gimnasia astelehenean eta asteazkenean izango da, arratsaldeko 17:15etik 18:00etara 4 eta 5 urteko haurrei zuzendua, eta 18:00etatik 18:45era 6 eta 7 urtekoentzat. Judoa ere astelehenean eta asteazkenean izango da, arratsaldeko 16:15etik 17:15era, 4 eta 8 urte arteko haurrei zuzendua. Gaztetxoentzat aerobikeko klaseak ere astelehen eta asteazkenean izango dira, 18:45etik 19:30era, 10 urtetik gorakoentzat. Izen-ematea kiroldegian bertan egin behar da eta epea irailean 30ean itxiko da. Klaseak, berriz, urriaren 5ean hasiko dira. Jubilatu eta pentsionistek pilates ikastaroa izango dute, astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 11:00etara eta 11:00etatik 12:00etara. Interesatuak ISMko bulegoan egin behar dute izen ematea, irailean azkena baino lehen, 9:00etatik 13:30era bitarteko ordutegian. <i>Diario vasco. Getaria, 2011ko iraila</i>

1. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Lotu esaldia eta testua

- | | | | |
|--|---|---|---|
| 1. Pilates ikastaro berezia antolatu dute pertsona helduentzat. | A | B | C |
| 2. Kiroldegi hau eguerditan itxita egoten da. | A | B | C |
| 3. Kiroldegi honetan izen emateak egun osoan zehar egin daitezke. | A | B | C |
| 4. Bazkideek egun jakinak dituzte izena emateko. | A | B | C |
| 5. Kiroldegi honek ez du oraindik eskaintza osoa egin. | A | B | C |
| 6. Kiroldegi honetan ikastaroetan izena emateko epea aste betekoa da. | A | B | C |
| 7. Kiroldegi honek ez du uretako jarduerarik eskaini. | A | B | C |
| 8. Haur txikientzako eskaintza berezia prestatu dute kiroldegi honetan. | A | B | C |
| 9. Testuaren arabera, kiroldegi honetan areto bereziak daude zenbait ikastaro egiteko. | A | B | C |

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Brenis Bermudez etxeko langile etorkina elkarrizketatu dute, eta hemen dauzkazu erantzunak; galderak, berriz, hurrengo orrian dituzu, nahastuta.

Lotu galderak eta erantzunak.

Markatu testuko hutsuneak (A, B, C...) betetzeko zein diren galdera egokienak (1, 2, 3...).

Nola markatu erantzun zuzena?

Hutsuneak	A	B	C	D
Galderak	1			

Eta oker markatu baduzu?

Hutsuneak	A	B	C	D
Galderak	1			
	5			

Galdera bat sobera dago.

ETORKINAK ETA KRISIA

32 urte dauzka, eta Hondurasetik alde egin zuen duela bi urte. Bost seme-alabaren ama da. Senarra Nikaraguara joan zen lanera eta beste emakume batekin geratu zen. Bermúdez lana aurkitu ezinik zebilen, umeen ardura zuen eta senarrak zorrak utzi zizkion. Bankuak kontu korrontea eta etxea kendu zizkion.

A

Ia urtebetez egon nintzen hemen lanik egin gabe. Zarautzen dokumentazioa lapurtu zidaten. Moja batzuengana ere joan nintzen, baina ateko leihatila itxi zidaten. Hemen gaizki nengoen, bankua atzetik neukan eta haurrengandik banatu izanaren mina neukan.

B

Beste emakume etorkinekin ibili nintzen, baina urtebete pasa eta lanik ez nuelako albo batera utzi ninduten. Mutil batek esan zidan galdutako paperak errekuiperatzeko nola egin behar nuen. Baina nik beldur handia nuen. Jaioterrira bidaliko nindutela uste nuen. Azkenean Ertzaintzara joan nintzen salaketa jartzera. Ordutik atea irekitzen hasi zitzaizkidalda sentitu nuen. Gero Silvia hasi zitzaidan laguntzen...

C

Ordura arte garbiketa lan asko egin nuen, baina nik lan egonkorra nahi nuen. Eduki dudak lanik okerreza izan zen. Igandean 4-5 ordu izaten nituen libre aste osoan eta janaria ukatzen zidaten. Alde egin eta Silviak hartu ninduen etxean.

D

Silviaren elkartean emakumeok elkarri kontatzen genizkion gertatutakoak. Esaten zidaten ez etsitzeko. Orduan, Zumaiaiko gizarte-zerbitzuetara jo nuen eta oso ondo tratatu ninduten. Diru-laguntza jasotzeko aukera neukan, baina garbi esan nien ez nuela laguntzarik nahi, lana baizik.

E

Zazpi hilabete egin nituen Azpeitiko familia batean zaharra zaintzen. Oso ondo egon nintzen lan-baldintza egokietan... Zaintzen nuen emakumea hil zenean hilabete hura ordaindu egin zidaten eta esan zidaten hurrengo lana aurkitu bitartean etxean egoteko.

F

Atari berean aurkitu nuen lana, beste zahar bat zaintzen. Hor ere oso ondo nago. Astea etxe horretan pasatzen dut eta asteburuetan Zumaian garbiketak egiten ditut. Ez dut ezer utziko badakidalako zer bizimodu daukadan Hondurasen.

G

Zorrak kitatzen ari naiz, baina hiru seme-alaba beraien aitarekin daude. Ni dibortziatzen ari naiz eta era berean hiru haurren zaintza eskuratu nahi dut. Umeak utzi egin ditudala leporatu dit senar ohiak, baina nik hemendik bost seme-alabak mantentzen jarraitzen dut. Nire ametsa hori da, egoitza-baimena lortzea, nire haurrak ikustera joateko. Orain joanez gero ezingo nintzateke itzuli.

H

Zuen kultura hobeto ezagutzen ari naiz eta diferenteak zarete, baina bakoitzak berea dauka. Gogorrak zarete, baina oso jende ona ere badago. Bada zerbait zuengandik gustatzen zaidana, etxean gizonarekiko daukazuen nagusitasuna. Diferenteak zarete gizonak eta emakumeak, baina eskubide berak dituzue.

Onintza Irureta. Argia, 2.267 zenbakia. Egokitua.

1. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak.

1. Eta gero?
2. Lehenengo lan egonkorra Zumaian aurkitu zenuen.
3. Honduras, Paris, Zumaia. Nolako izan zen Euskal Herrira iristea?
4. Zer moduz zabiltza ekonomikoki?
5. Urtebetez bakarrik ibili al zinen?
6. Dokumentazioaren lapurreta salatuta, Silvia ezagututa... ateak irekitzen hasi zirela sentitu zenuela esan duzu.
7. Bueltatzeko tentaziorik izan al duzu inoiz?
8. Zer moduz moldatu zara hemengo jendearekin?
9. Aurkitu al zenuen lan egonkorrik?

Idatzi dagokion zenbakia ondoko laukietan:

Hutsuneak	A	B	C	D	E	F	G	H
Galderak								

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIA

1. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota. (Inprimakia betetzeko eskatzen bazaizu –eskaera, mezu elektronikoa–, ez egin eskutitz itxurako ezer).
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU
ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN
BEHAR DITUZU

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.

Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Kalean lapurreta egin dizute. Ertzaintzara joan zara eta han inprimaki bat eman dizute salaketa egiteko. Azaldu zer gertatu zaizun, noiz, nola... eta lapurraren itxura deskribatu.

■ 2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure euskara maila hobetzeko, astebeteko egonaldia egingo duzu barnetegi batean. Eskolak goizez izango dira eta arratsaldean beste ekintza batzuk egingo dituzue. Barnetegian izango duzuen tutoreak ekintza horiek antolatzeko zuen gustuen berri izan nahi du.

Idatzi mezua

Bidali Gorde Baztertu

Norentzat:

Gehitu_Cc | Gehitu_Bcc

Gaia:

Erantsi fitxategia

Kaixo, Ane:

Astebete pasako dugu elkarrekin barnetegian. Eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeko, hobeto ezagutu nahi zaitut. Azaldu zergatik animatu zaren ikastaroa egitera, zein diren zure zaletasunak eta gustuak... Zure ustez, zein motatako ekintzak antolatu behar ditugu?

Bidali mezu bat horien berri emateko.

Amaia Urbistondo

Testu arrunta Ezaiztatu ortografia

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



1. HE / IRAKURMENA ERANTZUN ZUZENAK

- 1. ariketa: Aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: «Bordazar makinek ia urtebete daramate Donostian»

1.	C	5.	A
2.	C	6.	A
3.	B	7.	B
4.	C	8.	A

- 2. ariketa: Lotu esaldiak eta testuak
- Irakurgaia: «Kiroldagietako eskaintzak »

Esaldiak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Testuak	C	B	A	B	A	B	C	C	A

- 3. ariketa: Lotu galderak eta erantzunak
- Irakurgaia: « Etorkinak eta krisia »

Hutsuneak	A	B	C	D	E	F	G	H
Galderak	3	5	2	6	9	1	4	8

Sobera: 7. galdera